

ELGETA 2020 HAUSNARKETA PROZESUA.  
UDALARI HELARAZIKO ZAI ON PROPOSAMENA.

# GIPUZKOA PARTE HARTZEN

KULTURA POLITIKO BERRIA. HERRITARREN PARTAIDETZA.  
NUEVA CULTURA POLÍTICA. PARTICIPACIÓN CIUDADANA.



danon  artian  
**elgeta**

 **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera»

Gipuzkoako Foru Aldundiaren egitasmoen artean, garrantzi berezia hartu du “kultura politiko berriaren” sustapenak. Egitasmo orokor horren baitan, Gipuzkoaren gizarte-kapitala indartzeko asmoz, administrazioaren, arlo pribatuaren eta hiritarren arteko elkarlanerako dinamika-eredu berriak proposatu nahi ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Bide horretan, politika publikoen erabaki-eremuan hiritarren parte-hartzea eta inplikazioa sustatzea, egitasmo orokor horren funtsezko atala da. Asmo horrekin eta EUDELEkin elkarlanean bideratzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak Kudeatuz programa.

Kudeatuz programak bi helburu ditu. Batetik, herrietako gobernu sistemen inguruan hausnartzea, eta bestetik, herrietan herritarren partaidetza prozesuak bultzatzea, politika publikoetan inplikatur. Aurtengoa, hirugarren edizioa da eta Elgetak Gipuzkoako beste bederatzi herrirekin batera parte hartu du.

Elgeta 2020 parte hartze prozesuaren bidez Udaleko ordezkarien artean aurrera eraman den hausnarketa prozesua herritarren artean zabaldu nahi izan da parte hartze zuzena sustatuaz. Honela, hausnarketaren ardatza 2020an nolako Elgeta nahiko genukeen adostea izan da eta helburu horiek iristeko, administrazioaren, udalerriko eragile eta herritarren lankidetzarekin martxan jarri beharreko estrategiak eta ekintzak definitzea.

## Parte hartze prozesuaren abiapuntua

*“ Ze Elgeta nahi dugu etorkizunera begira?”*

Udaleko zinegotzien artean, hausnarketa prozesu bat eraman da aurrera, 2020ra begira udalerrri mailan martxan jarri beharreko estrategia eta ekintzen inguruan.

## Parte hartze prozesuaren helburuak

Parte hartze prozesuaren helburu konkretuak honakoak izan dira:

- Elgeta 2020 hausnarketa prozesua **herritarrei irekitzea**.
- Udalaren hausnarketatik eratorritako helburuak eta ekintzak **kontrastatzea**.
- Proposamen eta **ekarpen berriak** jasotzea.

danon  artian  
**elgeta**

 **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

## Parte hartze prozesuaren metodologia

### 2.1. HERRI BILERAK

Parte hartze prozesua aurrera eramateko **4 bilera** planteatu dira:

- **Lehenengo bilera (2010/10/21):** Prozesuaren aurkezpena eta Udal mailan landu diren ildo estrategiko eta ekintzen aurkezpena.
- **Bigarren bilera (2010/11/04):** Elgeta 2020 dokumentuko lehenengo 3 ildo estrategikoen azterketa, 3 lan-taldetan: eztabaida, kontrastea, ideien formulazioa eta proposamen berriak.
- **Hirugarren bilera (2010/11/18):** Elgeta 2020 dokumentuko azkeneko 3 ildo estrategikoen azterketa, 2 lan-taldetan: eztabaida, kontrastea, ideien formulazioa eta proposamen berriak.
- **Laugarren bilera (2010/12/02):** Lan taldeetan landu diren edukien aurkezpena eta Udalari aurkeztuko zaion proposamenaren inguruko kontsentsua.
- **Bosgarren bilera (2011/02/03):** Ondorioen aurkezpen bilera.

# 1 Helburua eta metodologia



## 2.2. BILERA SEKTORIALAK

Parte hartze prozesuaren baitan, herriko hainbat talde eragileren iritzia eta ekarpenak jaso dira:

- Herri eskola.
- Maala Guraso Elkarte.
- Gaztelekua.
- Gaztetxea.
- Xalbadorpe Jubilatuen Elkarte.
- Osasun Zerbitzuak.
- Herriko dendariak.

Bestalde, 2009-2010 ikasturtean Kirol foroan landu ziren ekarpenak ere txosten honetan barneratuak izan dira.



## OINARRIA. Elgeta 2020 planaren zirriborroa

- Udaleko zinegotziek adostu dute.
- Talde politiko guztiek egin dituzte ekarpenak
- Azken zirriborroa, zinegotzien arteko hiru bileretan adostu da.



Egin diren bilera ezberdinetan, plan honetan jasotako ekimenak eztabaidatu dira, planteatuko 6 ildoen inguruan zentratu delarik talde hausnarketa:

- |  |                             |
|--|-----------------------------|
| ➤ <i>Herriko garapen soziala eta herri bizitza</i>       | ➤ <i>Hirigintza</i>         |
| ➤ <i>Herrigintza iraunkortasun irizpideak jarraituta</i> | ➤ <i>Garapen ekonomikoa</i> |
| ➤ <i>Mugikortasuna eta zirkulazioa</i>                   | ➤ <i>Natura ondasuna</i>    |

Honela, dokumentu honetan ildo hauen inguruan lortutako ondorio garrantzitsuenak jasotzen dira:

# 2 Elgeta 2020 dokumentuaren kontrastea



## 1. Lan ildoak: Herriko garapen soziala sustatu.

Talde lanean landutako proposamenak aztertu ondoren, argi ikusten da garrantzi handia ematen zaiola Elgetako zerbitzu publikoak denen eskura egoteari. Udalerrri bertan eskaini ezin daitezken zerbitzuen kasuan, beste udalerriekin koordinazioa lantzea ezinbestekotzat ikusten da.

Honela, lehenengo ildoan hiru helburu estrategiko identifikatzen dira:

1.1. Osasun publikoa.

1.2. Aukera berdintasuna.

1.3. Zerbitzu publikoak denen eskuragarri.

Udalak landutako dokumentutik abiatuta, jarraian jasotzen dira ekintza esanguratsuenak.



# 2 Elgeta 2020 dokumentuaren kontrastea



## ... 1. Lan ildoak: Herriko garapen soziala sustatu.

### 1.1. – Osasun Publikoa.

**Herri bileretatik**, gai nagusien artean hauek aipatu dira:

- Anbulatorioan eskaintzen diren zerbitzuak zabaltzea proposatzen da, batez ere, pediatria zerbitzua.
- Kirol eskaintzaren baitan prebentzioaren ikuspuntua barneratzea.
- Herri "kardiobaskularren" irizpideak kontutan hartzea herriaren diseinuan eta jarduerak aurrera eramatean.

**Bilera sektorialetatik** honako ekarpena egin da:

#### LEHENTASUNEKOAK:

- Osasun zerbitzuak: herrian ditugun zerbitzuei eustea (*Osasun zerbitzuetatik jasotako ekarpena*).
- Osasun zerbitzuak: larrialdi zerbitzua eta pediatria zerbitzua falta dira (*Gaztelekua*).
- Eskola kirola indartu eta eskaintza erakargarria sortu (*Kirol Foroa*).
- 12-18 adin tartean kirol jarduera sustatu: Eskola Kirola luzatuta, eta gazteak eurak inplikaturik proposamenetan zein gestioan (adibidez: diru kopuru bat izendatu eta beraiek erabaki zer nahi duten kostea ezagututa) (*Kirol Foroa*).



# 2 Elgeta 2020 dokumentuaren kontrastea



## ... 1. Lan ildoak: Herriko garapen soziala sustatu.

(...) 1.1. – Osasun Publikoa.

### BESTE EKARPEN BATZUK:

- Bakarrik bizi diren adineko pertsonen eguneko zentroan bazkaltzeko aukera sustatzea (*Osasun Zerbitzuak*).
- Hartzeko pilulak antolatzeke sistema pertsonalizatuaren erabilera sustatzea (*Osasun Zerbitzuak*).
- Boluntarioen dinamika sustatu bakarrik dauden adineko pertsonen arreta emateko (*Osasun Zerbitzuak*).
- Anbulategiko zerbitzua: ordutegia zabaldu eta, batez ere, txanden ordutegian ematen diren atzerapen handiak konpondu (luze itxaron beharra) (*Xalbadorpe Jubilatuen Elkarte*).
- Jubilatu gazteak: azterketa sakona egin, euren errealitatea hobetu eta kirol praktikara erakartzeko; interesak ezagutu eta eskaerei erantzun (*Kirol Foroa*).
- “Adin guztietako herritarrek kirola praktikatzeko ibilbidea” egiteko proposamenarekin ados (*Xalbadorpe Jubilatuen Elkarte*).

danon  artian  
elgeta

 **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

# 2 Elgeta 2020 dokumentuaren kontrastea



## ... 1. Lan ildoak: Herriko garapen soziala sustatu.

### 1.2.- Aukera berdintasuna.

**Herri bileretatik** ondorioztatua:

- Etorkinak: Elgetara bizitzera datozen pertsonentzat harrera protokoloa egitea (atzerritarrentzat) eta harrera gida bat Elgetako intereseko informazioarekin (atzerritarrentzat eta atzerritarrak ez direnentzat).
- Pertsona nagusien eguneko zentroan etorkizunera begira aurreikuspen bat egitea sortuko diren premien inguruan.

### 1.3.- Zerbitzu publikoak denen eskuragarri.

**Herri bileretako** ekarpenak:

- Informazio komunikabideen azpiegiturak martxan jarri (fibra optikoa eta abar).
- Eskaintzen diren zerbitzuen inguruan kuotak jartzerako garaian irizpide berdinak erabiltzea zerbitzu guztientzat (adibidez: zerbitzuak daukan kostuaren arabera jartzea eta baten batek laguntza behar izanez gero, norbere sarreraren arabera laguntza sistemaren bidez lagundu).
- Jubilatuek etxe propioa izatea, beraiek kudeatuta, beste kolektiboek beren tokia duten bezala (kontsentsurik ez).

danon  artian

elgeta

 **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

## ... 1. Lan ildoak: Herriko garapen soziala sustatu.

(...) 1.3.- Zerbitzu publikoak denen eskuragarri.

**Bilera sektorialetatik** honako ekarpena egin da:

LEHENTASUNEKOAK:

- Internet eskura izatea: Wi-Fi zerbitzu publikoa herri osoan, edo internet leku publiko batean eskura, ordainduta bada ere (*Gaztelekua*).
- Gaztelekua beharrezkoa da "bestela ez dago ezer" (*Gaztelekua*).
- Espaloian gazteei zuzendutako pelikulen eskaintza (*Gaztelekua*).
- Julianen kioskoa hobetu eta handitzeko beharra (*Gaztelekua*).
- Erretiratuen etxea, erdialdean kokatua (*Xalbadorpe Jubilatuen Elkarte*a).

BESTE EKARPEN BATZUK:

- Adineko pertsonak Bergarara igerilekura joateko laguntza: ikastaroa berriz antolatu, garraioa erraztu, ... (*Xalbadorpe Jubilatuen Elkarte*a).
- Kanposantuan errautsetarako lekua: nitxo txikiak (*Xalbadorpe Jubilatuen Elkarte*a).
- "Jubilatuentzat jarduerak antolatzea" proposamenaz, horren beharrik ez da ikusten. Eurek antolatu ohi dituzte eurenak: jokoak, paseoak, irteerak... (*Xalbadorpe Jubilatuen Elkarte*a).

danon  artian  
elgeta

 **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

# 2 Elgeta 2020 dokumentuaren kontrastea



## 2. Ian ildoak: Herrigintza iraunkortasun irizpideak jarraituta

Herrigintzaren inguruan, Elgeta herri dinamiko eta bizia izatea lortzearen garrantzia azpimarratzen da, herritarren partehartzea sustatuaz. Honez gain, eragile ezberdinen arteko elkarlana oso garrantzitsutzat ikusten da. Pertsonetan inbertitu behar dela errepikatzen da.

Kasu honetan, honako helburu estrategikoak identifikatzen dira:

2.1. Herri dinamikoa. Bizia.

2.2. Parte hartzea bultzatu.

2.3. Tokiko Komunikabideak modu iraunkorrean garatzeko gaitasuna areagotu.

2.4. Inguruko herri eta erakundeekin elkarlan eraginkorra.

danon  artian  
elgeta

 **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

## ... 2. lan ildoa: Herrigintza iraunkortasun irizpideak jarraituta

### 2.1. Herri dinamikoa. Bizia.

**Herri bileretan** jasotako ekarpenak:

- Udal Batzordeak herritarrengana hurbiltzeko, bilera informatiboak antolatzea.
- Herrian egiten diren ekitaldi guztiak (udalekoak, elkarteetakoak...) koordinatzea eta egutegi bateratu bat osatzea.
- Belaunaldi erreleboa zaindu eta sustatzea.
- Elkarte mugimendua ere erraztu eta sustatzea.
- Elgetara bizitzera etorri diren pertsonak herriko bizitzan integratzen laguntzea.
- Kirol alorrean udalak jarduerak sustatzea, udalaren laguntza behar denean herritar ekimena laguntzea.
- Herritarrak komunikaturik mantentzeko, panel digital informatiboren bat jartzea (herriko plazan adibidez).

**Bilera sektorialetatik** honako ekarpena egin da:

LEHENTASUNEKOAK:

- Kirol foroa: kirol arloan herri ekimenak sortzea bultzatu eta horiek lagundu (*Kirol Foroa*).
- Udal web gunea modernizatu erabilgarriagoa izan dadin (*Gaztelekua*).
- GoitBren seinalea herri gune osoan ondo jaso dadila. Herri guneko leku batzutan dauden itzal uneak gainditzeko konponbide teknikoak bideratu (*Xalbadorpe Jubilatuen Elkarte*).

danon  artian  
elgeta

 GIPUZKOA  
zurekin, aurrera >

# 2 Elgeta 2020 dokumentuaren kontrastea



## ... 2. lan ildoak: Herrigintza iraunkortasun irizpideak jarraituta

2.2.- Parte hartzea bultzatu.

### Herri bileretako ondorioak:

- Parte hartzea sustatzeko plana egitea.
- Betiko bilera formatuak gainditu eta formula berritzaile eta erakargarriak identifikatu.
- Partaidetzaren kontuan teknologia berriak, on-line partaidetza, sare-sozialak... kontuan hartzea.

2.3.- Tokiko Komunikabideak modu iraunkorrean garatzeko gaitasuna areagotu.

### Herri bileretan ondorioztatua:

- Tokiko komunikabideak diruz laguntzea.

2.4.- Inguruko herri eta erakundeekin elkarlan eraginkorra.

### Herri bileretan jasotakoa:

- Inguruko herriekin elkarlanean jarraitzea.
- Mankomunitatea indartzea.
- Inguruko herriez gain, bailarako eragile sozial eta ekonomiko garrantzitsuekin elkarlana sustatzea.

danon  artian  
elgeta

 **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

## 3. Ian ildo: Mugikortasuna eta zirkulazioa

Hirugarren ildo honetan, Elgeta 2020 dokumentuan finkatzen diren hiru helburu estrategikoekin ados azaltzen dira herritarrak, nahiz eta hirugarren helburua, *"Garraioak ingurunean eta osasun publikoan duen kaltea leundu"*, oso lotuta ikusten den aurreko biek, eta beraz, bi helburu horiek betetzearen ondorio bezala ikus daiteke.

Azpitarratzeko gaiak, mugikortasun iraunkorraren konzienzia lantzearen garrantzia eta garraio publikoari bultzada ematea izango lirateke, batez ere.

Definitutako hiru helburu estrategikoak:

- 3.1. Herri barruan motordun zirkulazioa murriztu.
- 3.2. Mugikortasun iraunkorreko plan integratua.
- 3.3. Garraioak ingurunean eta osasun publikoan duen kaltea leundu.

Udalak landutako dokumentutik abiatuta, honako ekintzei eman zaie garrantzi edo lehentasuna gehiago.

danon  artian  
elgeta

 **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

## ... 3. lan ildo: Mugikortasuna eta zirkulazioa

3.1. - Herri barruan motordun zirkulazioa murriztu.

**Herri bileretako** ekarpenak:

- Konzienziazio eta hezkuntza landu beharra.
- Industrialderako bidea:
  - Oinezko bideak sustatu; bideak markatu eta txukundu.
  - Lasao kaletik industrialdera pasabidea hobetu.
- Aparkalekuak:
  - Gaur egun dauden aparkalekuak aztertu eta horiei buruz informatu; seinalizazioa hobetu herri osoan zehar.
  - Ez da beharrezkoa ikusten aparkaleku disuasorio berririk sortzea.
- Herri gunean oinezkoen gune berriak jarri?: ez dago adostasunik; peatonalizazio tenporalak baloratu (piboteak...).
- Bide alternatiboen aukerak seinalizatu.
- Elgetako negozio eta komertzioarengan autoaren erabilera mugatzeak eta aparkalekuak ez izateak izan ditzakeen eraginak aztertu, batez ere Elgetatik kanpo datozenen kasuan.
- Abiadura moteltzeko neurriak hartu; autoentzako oztopoak jarri.
- Berraondokuako sarrera hobetu.
- Kiroldigitik Pagatza industrialderako oinezkoen pasabidea hobetu.

danon artian  
elgeta

 **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

## ... 3. lan ildo: Mugikortasuna eta zirkulazioa

(...) 3.1. - Herri barruan motordun zirkulazioa murriztu.

- Bizikletaren erabilera sustatu:
  - Batez ere mendiko kasuan: ibilbideak markatu, oinezko eta txirrindulariei begira.
  - Lehengo ibilbideak errekuperatu; adibidez, Bergara eta Elorriorako bidea.
- Larrabiltzearra-ra oinezkoen pasabide egokia egitea.
- Elgetako sarrera bideak txukundu.
  
- Garrantzi gutxiko ekintzak:
  - Garajeak dituztenek, autoak barruan gordetzeko kanpainak (Kontzientzia lana orokorrean planteatu behar da.
  - Bizikleta alokatzeko aukerak: ez da beharrezkoa ikusten, ez bailuke funtzionatuko.

**Bilera sektorialetako** ekarpenak:

LEHENTASUNEKOAK:

- Maala kalearen oinezkotasuna zaindu eta bermatzea, ibilgailurik sar ez dadin (*Maala Guraso Elkarte*).
- Saihesbidea (*Xalbadorpe Jubilatuen Elkarte*).
- Tunel pareko oinezkoen pasabidean (Kultur Etxean) zebra bidea margotu eta kartela jarri (*Xalbadorpe Jubilatuen Elkarte*).



## ... 3. lan ildo: Mugikortasuna eta zirkulazioa

### 3.2. - Mugikortasun iraunkorreko plan integratua.

#### Herri bileretan jasotakoa:

- Garraio Publikoa bultzatu: apustu handia egin.
  - Kalitatezko eta denboran mantenduko den sarea. Jarraitasunaren eta maiztasunaren garrantzia.
  - Plan integrala osatu: gurasoak, haurrak, langileak... barneratzeko.
  - Gipuzkoako Foru Aldundiarekin garraio sarearen baldintzak negoziatu eta hobetu; planteamendu globala egin, linea errentagarriak, errentagarri ez direnak konpentsa ditzan.
  - Inguruko herriekin loturak sendotu.
  - Hirigunerako loturako: zeharkako loturak sendotuaz (adib. Bergara).
  - “Mozkor busa” Elgetatik pasa beharra.
- Elgetako Turismo balioa bultzatzeko helburuarekin, garraioa hobetzeko beharra (bai garraio publikoa, eta baita ere bakoitzak bere kotxearekin Elgetara etortzeko aukera).
- Industrialderako garraio zerbitzuak: herritarren beharrekin loturak bilatu; enprekin negoziatu eta puntu amankomun horiek bilatu.
- Autoak elkarrekin erabiltzeko aukerak; Udaletxean zerrenda sortu dagoen eskaintzarekin.
- Taxi zerbitzua: erdibideko puntua aurkitu; zerbitzu finkoak (ordutegi zehatzak) eta zerbitzu irekiak (gidariak beste zerbitzuak egiteko aukera).
- Planteamendu berriak: autobusaren ordeaz, trenaren alde lan egin. Adib: Debagoiena eta Debabarrena trenbide bitartez lotzeko aukera.

## ... 3. lan ildo: Mugikortasuna eta zirkulazioa

(...) 3.2. - *Mugikortasun iraunkorreko plan integratua.*

**Bilera sektorialetako** ekarpenak:

LEHENTASUNEKOAK:

- Garraio publikoa jarri eta bultzatu (Gaztelekua).
- Garraio publikoa. Batez ere Arrasateko ospitalerako behar handia (Xalbadorpe Jubilatuen Elkarte)
- Bidegorriak, bizikletaz ibiltzeko (Gaztelekua).
- Bidegorriak egin. Bizkaia aldera oso egokia (aldaparik ez); Karabieta eta Asentzio ere interesgarriak dira (Xalbadorpe Jubilatuen Elkarte).

3.3. *Garraioak ingurunean eta osasun publikoan duen kaltea leundu.*

**Herri bileretako** ondorioak:

- Udalak erositako ibilgailuak, emisio kutsatzaile gutxikoak izatea, beti ere funtzionamendu onekoak diren heinean.
- Lehentasuneko ez den gaia: "Herritarrei, emisio kutsatzaile gutxiko ibilgailuak erosteko laguntzen berri eman", norberaren kontzientzian baitago; hezkuntza landu beharra.

danon  artian  
elgeta

 **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

## 4. Ian ildo: Hirigintza

Hirigintzan planteatutako ekimenak lantzeko orduan, beharrezkoa ikusten da zer nolako Elgeta izan nahi dugun hamar urte barru; hau da, zer nolako dimentsioa izan nahi dugu? Zenbat biztanle izatera iritsi nahi dugu? Hori argi izanda, planteatutako ekintza helburu horretara bideratu beharko dira.

4. ildo honetan identifikatutako helburu estrategikoak, honakoak dira:

4.1.- Gure hiriko kultur ondarea behar den bezala gordetzea, berritzen eta berrerabiltzen dela ziurtatzea.

4.2.- Lurzoruaren erabilera mistoa bultzatzen duen hirigintza bermatzea.

4.3.- Eraikuntza eta diseinu iraunkorra egiteko eskakizunak ezartzea.

4.4.- Iraunkortasunaren aldeko kudeaketa integratua posible egitea, prebentzio-printzipioetan oinarrituta.

danon  artian  
elgeta

 **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

## ... 4. lan ildoak: Hirigintza

4.1. - *Gure hiriko kultur ondarea behar den bezala gordetzea, berritzen eta berrerabiltzen dela ziurtatzea.*

**Herri bileretako** ondorioak:

- Kultur ondare bezala landa gunea barneratzearen garrantzia azpimarratzen da.
- Kultur ondarearen inguruko araudi bat diseinatzea.
- Hiriguneko zenbait eraikin kultur ondare gisa katalogatzearen garrantzia, eta honen inguruan hausnarketa egitea.

4.2. - *Lurzoruaren erabilera mistoa bultzatzen duen hirigintza bermatzea.*

**Herri bileretako** ekarpenak:

- Etorkizunera begira, nolako herria eta zenbateko hazkundera nahi den definitzeko hausnarketa egitea.
- Hausnarketa horren ondorioz finkatutako helburuen arabera, Elgetan bizitzearen onurak identifikatu eta ikustarazi.
- Etxebizitzen beharra ezagutu, eta beharra identifikatzen bada, bide ezberdinetatik erantzuten saiatu: etxeen zahar berritzea bultzatu, alokairua sustatu eta herrian izango diren gazteek herrian geratu nahi badute etxebizitza prezio duin batean eskuratzeko aukerak landu.
- Hirigunean dauden etxe hutsak betetzeko politikak landu.
- Etxebizitzen alokairua bultzatzea, hutsen daudenen kasuan.

## ... 4. lan ildoak: Hirigintza


(...) 4.2.- Lurzoruaren erabilera mistoa bultzatzen duen hirigintza bermatzea.

- Artekaleko eta Berraondokuako enpresak beste leku batean kokatzeko bideragarritasuna aztertzea.
- Praktikotasunagatik, gaur egun dagoen kirol gunean guztia zentralizatzea.
- Lokalak etxebizitza bihurtzeko arautegia egitea.
- Kiroldegi kanpoko kantxa berritzea.
- Igerilekua izatearen bideragarritasuna aztertu.
- San Roke osteko parkea babestea.

**Bilera sektorialetatik** honako ekarpenak egin dira:

LEHENTASUNEKOAK:

- Eskola ingurua egokitzea (Patronatuaren eraikina barne), Herri Eskolak 2010eko martxoan aurkeztutako proposamena aintzat hartuta (*Herri Eskola*).
- Patronatuaren eraikina eta ingurua konpontzeko beharra (*Gaztelekua*).
- Haurrentzako ziburuak egoera txarrean daudelako, hauek gune gutxiagotan kokatu (parke guztietan jarri gabe) eta hobeto mantendu (*Maala Guraso Elkarte*).
- Kanpoko kantxan hobekuntzak egin etekin handiagoa ateratzeko: lurra berriztatu, argiztatu eta estali (*Kirol Foroa*).
- Kiroldegia hobetu: konfort maila hobetu, eta gelak eraberritu, erabilera anitzeko irizpidez (*Kirol Foroa*).
- Kiroldegiko 'barrankuan' sarea jarri (*Gaztelekua*).



## ... 4. lan ildoak: Hirigintza

(...) 4.2.- Lurzoruaren erabilera mistoa bultzatzen duen hirigintza bermatzea.

### BESTE EKARPEN BATZUK:

- Asentzión igerilekua (*Gaztelekua*).
- Igerilekua: Kirol Forotik adierazten da igerilekuaren ideia baztertu egin behar dela mantenuaren kostuagatik.
- Skate parkea aterpean jarri (*Gaztelekua*).
- Saihesbidea egindakoan, kiroldegiaren ingurua kirol eta aisialdirako atontzeko plana landu (*Kirol Foroa*).

4.3.- Eraikuntza eta diseinu iraunkorra egiteko eskakizunak ezartzea.

### Herri bileretan jasotakoa:

- Hirigintzako arautegietan irizpide jasangarriak ezarri.
- Energia berriztagarrien erabilpena (adibidez, aerosorgailu txikiak) bultzatzeko neurriak hartu.
- Eraginkortasun energetikoa hobetzeko neurriak hartu: auditoria energetikoa egin, EVerekin sinatutako akordioari jarraipena egin, eraikin publikoetan elektrizitatea aurrezteko neurriak hartu, zehaztu energia berriztagarrien alorrean zer bultza dezakeen Udalak herrian zein industrialdean, errehabilitazioetan efizientzia energetikoak bultzatzeko dauden diru laguntzen berri eman.
- Gas naturala Elgetara etortzeko aukerak aztertu, eta ekarri.

## ... 4. lan ildo: Hirigintza


(...) 4.3.- *Eraikuntza eta diseinu iraunkorra egiteko eskakizunak ezartzea.*

- Ur kontsumoa gutxitzeko neurriak hartu: iturriak, ihesak konpondu, baserrietako ur sarearen gaineko proiektua egin eta lehentasunak zehaztu.
- Ur zikinak bideratzeko proiektua egin eta aurrera eraman Jaurlaritzarekin elkarlanean: ur zikinak Bergarako arazgailura bideratu.
- Praktikotasunagatik, gaur egun dagoen kirolgunean guztia zentralizatzea.

4.4. - *Iraunkortasunaren aldeko kudeaketa integratua posible egitea, prebentzio-printzipioetan oinarrituta.*

**Herri bileretako** ekarpenak:

- Hondakinen ziklo osoaren (sortzen direnetik eta ematen zaien tratamendua) inguruko hausnarketa egitea udalerrri mailan. organikoaren bilketa aurrera eramatearen planteamenduaren hausnarketarekin batera.
- Konposta errazteko baliabideak aztertu.
- Kontsumoa gutxitzeko konzienziazioa lantzearen garrantzia.
- San Kristobal garbi gunearen gaineko informazioa eman, askotan ez baita aukera hori dagoela ezagutzen.



## 5. Ian ildoa: Garapen ekonomikoa, iraunkortasun irizpideak jarraituta

5. ildo honen inguruan, herritarren aldetik egiten den apustua, batez ere, ondorengo gaietan egongo litzateke:

- Kanpoko enpresentzako Elgetan ezartzeak izan dezakeen etekina definitu eta ikustarazi.
- Nekazaritzako produktuaren salmenta bultzatu, elkarlanaren bitartez.
- Zer nolako turismoa nahi dugun definitu eta garatu.

Honela, Elgeta 2020 dokumentuko hiru helburu estrategikoak ondorengo moduan adosten dira:

5.1. Tokiko enpresekin lankidetzan aritzea jardunbide korporatibo egokiak sustatzeko eta ezartzeko.

5.2. Tokiko turismo iraunkorra sustatzea.

5.3. Hirugarren sektorea sustatu.

danon  artian  
elgeta

 **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

# 2 Elgeta 2020 dokumentuaren kontrastea



## ... 5. lan ildoak: Garapen ekonomikoa, iraunkortasun irizpideak jarraituta

5.1. - Tokiko enprekin lankidetzan aritzea jardunbide korporatibo egokiak sustatzeko eta ezartzeko.

**Herri bileretan** jasotakoa:

- Enprekin lankidetzan aritzea.
- Kanpoko enpresentzako Elgetan ezartzeak izan dezakeen etekina definitu eta ikustarazi.
- Nekazaritza eta bertako produktuen salmenta sustatu:
  - Eragile ezberdinen artean kooperazioa landu.
  - Bitartekaririk eskatzen ez duten formulak bilatzea (nekazari ezberdinen elkarlanetik sortutako zuzeneko salmentarako guneak, Internet...).
  - Bolumena lortzeko helburuz, beraz mankomunitateak honetan izan dezakeen papera kontsideratu.
  - Beste eremuetan egin diren esperientziak jaso eta aztertu, Elgetako kasuan aplikatu daitezkeen aukera ezberdinak baloratu (Usurbilgo Kooperatiba).

**Bilera sektorialetatik** honako ekarpena egin da:

LEHENTASUNEKOAK:

- Udalerrian lana izateko baldintzak sortu (*Xalbadorpe Jubilatuen Elkarte*).

danon  artian  
**elgeta**

 **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

## ... 5. lan ildoa: Garapen ekonomikoa, iraunkortasun irizpideak jarraituta

5.2. - Tokiko turismo iraunkorra sustatzea.

**Herri bileretako** ondorioak:

- Elgetak zer nolako turismoa nahi duen aztertu, hausnarketa egin; turismo mota berriak sustatzeak gaur egun dagoen turismo mota uxatu dezake ...
- Elgetak turismora begira izan dezakeen berezitasuna zein den zehaztu eta ezagutarazi.
- Taldeko turismoan zentratu; adibidez, 2 edo 3 eguneko eskola bisiten bidez.
- Eskolekin akordioak sinatu.
- Aterpetxea sortu, talde turismo hori bultzatzeko.
- Barnetegi bat sortzeko aukerak aztertu.
- Asteburuko bisitak bultzatu.
- Bisita gidatuak planteatu, erroten zahar berritzea sustatu... Proiektua martxan jarri eta mantendu.
- Pakete turistikoak sortu, ostalaritzaren inplikazioa sustatuaz.
- Eragile publiko eta pribatuen arteko lotura sendotu.
- Gerraren inguruko turismoa mantendu: denboran iraun dezan, interesa sustatzen jarraituko duen planteamenduak egin.
- Elgeta eta Santiagoko Bidearen arteko loturaren inguruko hausnarketa egin.

danon  artian  
elgeta

## ... 5. lan ildoak: Garapen ekonomikoa, iraunkortasun irizpideak jarraituta

### 5.3. - Hirugarren sektorea sustatu.

**Herri bileretako** ondorioak:

- Elgetako ostalaritza alorraren eguneratzea sustatu.
- Ekimen pribatuarekin elkarlana bultzatu.

**Bilera sektorialetatik** honako ekarpena egin da:

LEHENTASUNEKOAK:

- Herriko merkataritza sektorea eta bertako kontsumoa sustatu: udala eta herriko merkataria eta zerbitzuen arteko lankidetzaz abiatu eta dinamizatu, hauek udalari aurkeztutako proposamenak oinarri hartuta (*Dendariak*).
- Herriarrek erosketak herrian egiteko konzientziak kanpainak (*Dendariak*).

BESTELAKO EKARPENAK:

- Astelehenetako azokarako udal arautegia sortu, herriko merkatariekin elkarlanean (*Dendariak*).
- Herriko merkataritza eta zerbitzuak babesteko jarrera eta politikak (*Dendariak*):
  - o Udalaren esku dauden tasak arintzea aztertu
  - o Kalitatezko aholkularitza zerbitzua, bai egungo merkatariei, bai ekimen berri batekin datozenei: bidelagun izan, tramitazioa erraztu, aholkularitza zerbitzu publikoengana bideratu...
  - o Udal erosketak eta esleipenetan herriko enpresak lehenetsi.
  - o Merkatarien ekimena saritu.

danon artian  
elgeta

GIPIZKOIA  
zurekin, aurrera

## 6. Ian ildo: Natura ondasuna

6. ildoari dagokionean, garrantzia ematen zaio biodibertsitatea indartu eta mantentzeari, hala nola, landa lurren erabilera eta lurzoruaren kalitatea hobetzeari. Hala ere, lehenengo lan ildoan aldaketa bat planteatzen da, Elgetan berdegune ugari daudela kontsideratzen baita, eta beraz, berdegune gehiago sortzea ez litzateke helburu izango, jadanik daudenak mantentzea baizik.

Bestetik, ibilgailuen joan etorria egokia izateko neurrien inguruan, adostasun handia dago.

Honela, orokorrean positiboki baloratzen dira Elgeta 2020 dokumentuan finkatutako helburu estrategikoak:

6.1. Biodibertsitatea indartzea eta areagotzea, eta berdeguneak nahiz natur guneak mantendu eta zaintzea.

6.2. Landa guneetan ibilgailuen joan etorria egokia izateko neurriak hartu eta hauek mugatzeko neurriak hartu.

6.3. Landa lurren erabilera zehaztu.

6.4. Lurzoruaren kalitatea hobetzea.

danon  artian  
elgeta

 GIPUZKOA  
zurekin, aurrera >

## ... 6. lan ildoak: Natura ondasuna

6.1. - Biodibertsitatea indartzea eta areagotzea, eta berdeguneak nahiz natur guneak mantendu eta zaintzea.

**Herri bileretako** ekarpenak:

- Bertako landaretza berreskuratzeko helburuarekin lurrak erosteko plangintza egin.
- Eratzun berdea dagoenean mantendu.
- Bidegorriak finkatu, bai oinezko eta bizikletarako.
- Herriak zein lur dituen inbentariatu eta aztertu.
- Gazteluko eremuan interbentzioa egiteko beharra ikusten da: basoa garbitu eta pinua botatzeko moduan egon daitekeela uste da.
- Bestetik, Intxortaren inguruan Elgeta 2020 dokumentuan agertzen diren 3 planteamenduak ontzat ematen dira; besteak beste, batez ere ibilbideak markatu eta txukun mantentzea eskatzen da.

6.2. - Landa guneetan ibilgailuen joan etorria egokia izateko neurriak hartu eta hauek mugatzeko neurriak hartu.

**Herri bileretatik** ondorioztatua:

- Hemen planteatutako ekimenak ondo baloratzen dira, ibilgailuen joan etorria egokia izateko neurrien inguruan.
- Presatik Elgetara doan bidea baserrietako ibilgailuetara mugatu.

danon artian  
elgeta

 **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

## ... 6. lan ildo: Natura ondasuna

6.3. - *Landa lurren erabilera zehaztu.*

**Herri bileretako** ekarpenak:

- Txabolen auziaren gaineko hausnarketa egiteko foroa sortu.
- Ortua izan nahi duten herritarrei aukera hori eskaintzeko garaian, beste herrietako esperientziak ezagutzeko ikerketa egin.

6.4. - *Lurzoruaren kalitatea hobetzea.*

**Herri bileretan** jasotakoa:

- Lur bankuen gaineko informazioa eman herritarrei.
- Lurrak produktiboak egin.

danon  artian  
elgeta

 **GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

## ONDORIO NAGUSIENAK

Udaleko ordezkari politikoaren artean adostutako estrategiak eta ekintzak aztertu dira:

- Herritarrekin, bilera irekietan.
- Herriko talde eragileekin, bilera sektorialetan.

Bilera sektorialetan, kolektibo ezberdinen ikuspuntua eta ekarpen partikularrak jaso dira.

Gaztetxeak ez du prozesuan parte hartu nahi izan, ezta iritzirik eman nahi izan ere.

- Arrazoia: ez dute uste honek gero ezertarako balio izango duenik, esandakoak aintzat hartuko direnik.
- Ez zaie metodo egokia iruditu, azken honen inguruan azalpen gehiago eman gabe.

### ONDORIOAK:

- Lehenik eta behin prozesuan parte hartu duten partaide batzuk 2020a urruti ikusi dute
  - Etorkizuna diseinatu ahal izateko estrategiak orain martxan jarri behar direla ulertzen zuten.
- Orokorrean, Udaleko ordezkari politikoek egindako hausnarketatik eratorritako estrategia eta ekintzekiko ez da desadostasun nabarmenik planteatu, positiboki baloratu dira.
  - Hala ere, zerrenda luzea denaren ustea dago.



# 3 Prozesutik eratorritako ondorioak




➤ Bileretatik eratorritako ekarpenak eta aipuak kontutan izanda Elgetan ondo bizi direnaren irudipena dago.

- Oso positiboki baloratzen da Elgetak eskaintzen duen lasaitasuna, bere natura balioa eta herri dinamika.
- Hainbatetan aitortu da Elgetak dituen puntu ahulak ezagunak direla eta bertan bizi direnek nolabait barneratuak dituztela gabezia horiek, izan ere, gabezia horiekin bizitzera ohituak daudelako.
- Besteak beste, gehien errepikatu diren gabeziak garraio publiko falta eta zerbitzu batzuen gabezia (gasa, zuntz optikoa, ur zikinen bideratzea, anbulategiko zerbitzuak).

➤ Alabaina, Gipuzkoako herritar bezala hainbatetan esan da beste herri batean bizi diren herritarrekiko aukera berdintasuna izan beharko luketela elgetarrek, eta nolabait, Udalaren funtzio nagusia hori defendatzea izan beharko lukeela. Honela, herrian ez dauden zerbitzuak eskuragarri izatea eta horretarako bitartekoak jartzea (adibidez: Elgetan igerilekurik ez dagoen heinean beste udalerriekin konbenioak adostu elgetarrek ere zerbitzu hori izateko).

➤ Etorkizunera begira, lehenetsun bereziko gaien artean kokatzen diren gaien artean honakoak nabarmentzen dira:

- Garraio zerbitzuak jarri eta garraio publikoa bultzatzea.
- Egun udalerrian dauden zerbitzuak mantendu, hobetu eta kasu batzutan zabaltzea (osasun zerbitzuak).
- Oinarrizko azpiegiturak bermatzea (zuntz optikoa, gasa, ur zikinak bideratzea eta abar).
- Pertsonetan inbertitzea.



# 3 Prozesutik eratorritako ondorioak



➤Lehentasunen artean kokatzen diren arren, indar gutxiago izan dute honako gaiek:

- Etxebizitzak zaharberritzea eta eskaintza aztertzea.
- Turismoa eta garapen ekonomikoa bultzatzea.
- Autoak desagertzea kaleetatik.

➤Lehentasunekoak bezala aipatu diren alor horietan Udalaren eta udalerrriaren jarduera kompetentziak kasu gehienetan mugatuak direla uste da.

- Udalaren zeregin nagusia: gainerako administrazio eta entitateen aurrean eskaerak luzatu eta defendatzea.

➤Aipagarria da dendariekin egindako bileretan jasotako ondorioetako bat: Udalak konfiantza berreskuratu beharra, eta dendari eta zerbitzuekin elkarlan bideak martxan jarri beharra.

➤Esanguratsua da ekarpenen artean bi hausnarketa eskaera jaso izana:

- Hondakinen kudeaketa sistemaren inguruko hausnarketa egitea ziklo osoa kontutan hartuta.
- Udalerriko biztanleria kopuruaren inguruko hausnarketa etorkizunera begira.

